



TXINDOKI BERTIKALA PROBA EKAINAREN 19AN

Euskal Herriko Bertikalen Txapelketarako puntuagarria izango da; izena emateko aukera zabalik dago » 4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-05-30

VIII. URTEA 2.014. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Edurne Pasabanek eta Asier Izagirrek tolosarren ongietorri beroa jaso zuten atzo udaletxeko balkoian. INIGO TERRADILLOS

Txaramakoen amaierarekin batera Anoetakoak hasi dira

JAIAK Anoetan Dantzari Txiki Egunean Oskorrik kontzertua eskainiko du 5



El Salvadorreko kideak. A. I.

II. Senidetze Eguna ospatu dute Adunan

GIZARTEA Segundo Montes komunitateko ordezkariak egon dira bertan 6

EDURNE PASABAN ETA ASIER IZAGIRRE ETXEAN DIRA

TOLOSA Udaletxearen aurrean jendetza bildu zen atzo bi mendizale tolosarrei ongietorria egiteko; Pasabanek eta Izagirrek Bisiguaren Festarekin bat egin eta bertan bazkaldu zuten 7



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 31etik EKAINAREN 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

➤ Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak

➤ Mekanizazioa

➤ Soldadura eta Galdaragintza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Desagertzearen liburua (XIV)



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Maiatzaren aldean izango zen. Sagarrondo loreak eta azken elurrak Ernion, maiatzean.

Askotan zalantza izaten dut zein den benetako paisaia, begi aurrean dudana edo eta buru barruan dan-

tzari dabilkidana. Jendez inguratuturik eta era berean bakarrik.

Herri urrats batean murgildurik edo uharte bakarti honetan, norberak gehiegi aukeratu gabeko egoerak eta derrigorrez betetzen ditugunak.

Hogei eta bat garreneko mundua eromena zen, kutsadura, gerrateak, eta pobrezia espirituala eta honen eraginez jendearen desplazamenduak ikaragarriak ziren.

Nonbait naturak gizonengan jarritako altxorra betirako desagertua zirudien.

Natura gero eta hondatuagoa salbatu beharra zegoen eta horrela sortu ziren parkeak eta babes na-

turalak. Beti bezala ekonomia erdatzean. Garai haietan Ernio-Gatzume ere Europar natur gunea izendatu zuten.

Salba ditzagun sagiak, salba kalaridoak, saguzarrak eta orkideak... salba, salba, salba.

Desagertze zorian zeudela denak, hala zioten teknikariek... bai eta arrazoia izan.

Alkizatik gora altxatzen ziren malkorretako pago- motzen tartean murgildurik oroitu nahi ditut sentsazioak... *Tarzan* pelikuletan azaltzen ziren elefanteen zimitorioak buruan nituelarik pasatzen nintzen animalia bihurtutako pago erraldoi haien artean, hostaila

heze eta lizunaren usai hartan murgildurik, hosto soinu haiei artean irristatuz.

Enborren begi zulo haien aurretik pasatzen nintzen, jakinda natura hark hautematen minduela.

Pago-motzak, aspaldi utzi zioten pago-motzak izateari eta bere adar luzeak natur poesiaren legeari eragiten zioten; aspaldian ez zen inor baso haietan ageri, txondor lekuen goroldio estalkorrak eta zuhaitz enbor bikainak hala mintzo ziren bai eta borda gaixoak bere kargaz lehertuak, eta azkenik lurrera etorriak.

Arrazoia zuten teknikariek baina ez osoa. Non zeuden basa-gizonak, non mendeetan zehar ibilitako gizonak?

Teknikariek ez zituzten inoiz gogoratu, basoa beraiantzat, neu-

rri bat besterik ez zen, zerbait kuantifikablea... gizona gizonetaz ahaztu.

Pago-motz haiek denak, abertalde bat izango balitz bezala zaindu zituzten gizakiak ere desagertzeko zorian zeuden baina ez zen haiez inor oroitu. Beraien belaualdien memori guztia desagertzeaz zegoen, baina errukirik ez.

Zenbait gai ez dira kuantifikableak, ez horixe. Pago-motz haiek Tarzanen pelikuletako Elefanteen moduan, etzaten ari ziren, akaso nekea, akaso bere garaia igaro zelako, akaso baso-artzainik gabe nora ezean galdurik zeudelako, haize kolpada baten laguntzaz bere hankak altxa zituzten gizakiak bihurtu nahirik, ahaztutasun hartatik alde egin nahirik lur maitasun besarkadaren bila...

G Gutunak

Lizartzako herritarrei:

Kaixo lagunak!

Espetxeratu mindutenetik 10 hilabete joan diren honetan, 4 paretan hauen arteko bizitza xamurragoa izatea egin duten elkartasun zein maitasun mezu guztiak eskertu nahi nizkizueke.

Handia izan da Lizartzatik zein txoko ezberdinetatik jaso dudan babesa. Horrek aurrera egiteko indar handia ematen dit.

Baina gutun honen bitartez esan nahi dizuedana zera da: poz ikaragarria sortzen didala, gure herriarengatik lanean jarraitzen dezuela jakiteak. Herriatik sortutako eta herritarrei zuzenduriko ekimen de-xente antolatzen zabilazate: Aste Kulturala adibidez, egindako ekitaldietan parte hartzea handiarekingainera. Hemendik aurrera ere lanean jarraituko dezutela jakinda (ludotekan, festetan...), nere animo handienak bidaltzen dizkizuet!

Aupa zuek!!!

Consuelo Agirrebarrena.

Martuteneko espetxetik.



2009ko irailaren 9an, Lizartza kalera irten zen Consuelo Agirrebarrenaren atxiloteta salatzeo, A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

IKAk 20 urte!!!

» Iritzia

Leitzaldeko IKA euskalgia

Leitzaldeko IKA euskalgia, 20. urteurrena ospatzeko festa eguna antolatuta zuen atzo Leitzan. Bi arrazoi nagusi ditugu honelako ospakizuna egiteko. Batetik, 20 urte igaro ondoren oraindik ere helduak euskalduntzen eta alfabetatzen aritzea ez delako makala, eta bestetik, ekintza hauetaz baliatu nahi dugulako Nafarroan pariatzen dugun euskararen aurkako hizkuntza politika salatzen.

Bitxia da benetan atzera begira jarri eta konturatzeko 20 urte hauek aldaketa franko izan dela. Denbora ez da alperrik igaro eta! Euskararen egoerari erreparatu, al-

Lotsamangarria eta negargarria da Nafarroan euskarak bizi duen egoera

Euskaraz bizitzeko eskubidea dugu eta kitto! Euskaraz bizi nahi dugu; zergatik ez?

daketa askok onera jo dute eta poztekoa da benetan; beste batzuetan berri, aldaketarik ez da eman edo eman badute okerrera egin dute. Orain dela 20 urteko aldarrikapenak berriro ere errepikatu beharrean gaude. Horra horjoan den astean Iruñean egin genuen manifestaldi handia.

Lotsamangarria eta negargarria da Nafarroan euskarak bizi duen egoera. Lotsamangarria eta negargarria izan da, besteak beste, euskalgia sufritu eta sufritzen ari garen Nafarroako Gobernuaren politika. Behin baino gehiagootan osotara itozteko zorian izan gara eta orain ere, hala gaude. Azkene-

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenturako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

ko urteotan gainera, egoerak okerrera egin du nabarmen. Nafarroako mendialdean euskara mankomunitatez esker, udalez esker, jarrai dezakegu aurrera, bestela akabo.

Euskalgietan ez eze, euskalgintzako arlo guzietan ere, egoera larria bizi dugu. Lehen gainera, lotsa pittin bat bazuten, orain berri, inolako disimulurik gabe eta etengabe euskararen kontra jotzen dute. Hemendik aurrera, krisia da aitzakia, azkeneko 20 urte hauetan egin dutena indar handiagoz egiteko.

Horregatik, bat egiten dugu euskalgintzak lehengoan Iruñean aldarrikatu genuenarekin. Hots, euskara eskubidea da. Euskaraz bizitzeko eskubidea dugu eta kitto! Euskaraz bizi nahi dugu; zergatik ez? Ba al dago eskubidezko edota justiziako arrazoirik euskaraz bizitzea galarazteko? Ez luke egon behar.

Bat heldu gara ere, Kontseiluak Iruñean planteatutako aldarrikapenekin:

1. Belaunaldi berriak osorik euskalduntzea bermatuko duen hezkuntza-sistemaren erreforma.

2. Administrazioa epe onargari batean euskaldundu behar da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

3. Alor sozio-ekonomikoa euskalduntzeko neurri eta proiektu eragingarriak ezarri behar dira.

4. Helduen euskalduntze-alfabetazeari duen izaera estrategikoa aitortu behar zaio eta beharrezko baliabideak eskaini lana egoki garatzeko.

5. Hedabideetan ezagutzaren araberako kuotak ezarri behar dira, eta euskara hutsezkoak bereziki sustatu.

6. Euskararen aurrekontuak nabarmen handitu behar dira, besteak beste, jarduerak kultura- eta aisialdi-jarduerak sustatzeko diru-partidak.

7. Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren eskaintza oso-osorik euskalduntzeko planak ezarri behar dira.

Esan bezala, gonbidapena luzatu nahi dizuegu gurerara etor zaitezten euskaraz bizitzera eta euskara aldarrikatzera.

G Gutunak

Beharrezkoa da sektore ezberdinetako borroka elkartzea

1929tik aurrekaririk ez duen krisi ekonomikoak, kapitalismoaren oinarri sozial eta politikoak astintzen jarraitzen du eta sistema erregulazio honen benetako aurpegi erakusten jarraitzen du. Krisia sufritzen ari diren bakarrak langileak eta gizarte sektore zapalduak izan arren, kapitalisten ikus-puntutik konponbide bakarra dago bertatik ateratzeko: gastu soziala murriztu eta soldadak eta langileen eskubideak erasotu. Egoera honetan ulertzen dira Gipuzkoako metaleko eta grafikagintzako langileen aurka botatuko eraso basatiak, Adegiren eta enpresarien aserzintasuna eta harropuzkeria erakusten duten erasoak.

Ez da inolako kasualitate bi konbenio hauetarako Adegiren proposamenak berdinarak izatea

kasu askotan: soldataren izozketa, lan jardunaldiaren handitzea, antzimatatasunaren desagerpena, 120 orduko «malgutasuna» enpresarentzat, ordu sindikalen ezabaketa, lan jardunaldian asanbladak egitearen debekua eta konbenioaren iraupenean grebak ez egitea derrigortzea suposatuko lukeen akordio sozialaren sarrera. Eraso hauek klase kapitalistak elkarrekin antolatua izan dira, langile klasea zapaltzeko eta desmoralizatzen helburuarekin. Beren harropuzkeria hain handia da zein ausartu egiten dira langile mugimenduen borrokaekin lortutako eskubide historikoak erasotzea: eskubide sindikalak, asanbladarako eskubidea eta grebarako eskubidea.

«...»Eraso guztiei aurre egiteko pasa den urteko maiatzaren 21eko Greba Orokorrarekin hasitako bidea jarraitu behar dute sindikatuek. Uste dugu beharrezkoa dela

langile klasearen indarrak elkar-tzea, langile guztien eta erakunde sindikal guztien ekintza batasuna bultzatzea. Borroka bateratuak ez du esan nahi sindikatuek beren errebindikazio propioak defendatzeari edo beste sindikatuak kritikatzeari uztea. Are gehiago, posible da eta beharrezkoa da gainera. Langile mugimenduen banaketak eta batasun sindikalaren gabeziak ez die ezertan laguntzen langileei. Sindikatu guztiek konbokatutako greba orokor batek, langile euskal herritarrek, kataluniarrak, galiziarrek eta espainiarrek elkar-tuz, mahai gainean jarriko luke langile klaseak duen potentzial handia eta modurik onena izango litzateke langile familiarik, langabetei eta gazteriarri eragiten dieten erasoer aurre egiteko.

Ruben Hernandez eta Manu

Odriozola. Grafikagintzako langileak eta Euskal Herria Sozialista' aldizkariok kideak.

Giro ezin hobea Tolosako azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna borobila izan zen arlo guztitan. Apaingarriko landareen azoka berezia zela eta, bertako ekoi-zeelek lorategi desberdinak prestatu zituzten Tolosako hainbat plazetan, kale guztiak kolorez jantziz.

Zerkausion eskaintza zabal izan zen. Perretxiko mota desberdin asko, ilarrak, babak, patata berria edo letxua izan ziren nagusi mahaian.

Ekoi-zee, sukaldari eta gastronomo talde batek Illarrako Kofradia eratu dute, geure-geurea den eta une honetan gorengo aldian dagoen sasoiko produktu hau zientifikoki nahiz gastronomikoki zabaldu eta ikertzeko asmoz.

Etorriko diren hauek, urtero eta garaia denean, lekale honekin lana egiten dute. Horregatik, datorren larunbatean, Zerkausion erosketak egin ondoren, Gaztelako arkuaren ondoan, produktu honekin erakustaldi eta dastaketa bat egingo dute, plater ezberdinak sortuz.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Albahaca	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Zilantroa	1,50	-
Berben	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK		
Perretxikoak		
Onddoak	30,00	-
Zizak	10,00	36,00
Ziza horia	20,00	-

Barazkiak (sorta)		
Zierberba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,00	3,00

Barazkiak (kiloa)		
Tipula berria	1,50	-
Porruak	1,00	4,00

Ilarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarrun zuria	8,00	-
Patata berria	1,50	2,00
Tomatea	3,25	4,00
Bainak	3,00	4,00

Fruta		
Kivia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK		
Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kilo)		
Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iturbe nekazalturismoa



José Ignacio Cabrero Ugalde
B° Altamira, 48350
BUSTURIA (BIZKAIA)

Tfnoa: (+34) 636 328 135
Faxa: (+34) 946 186 491
E-posta: agroiturbe@euskaltel.net

Urdaibaiko erreserba biosferikoan kokaturiko etxe berrabildua. Komuna duten sei logela bikoitz. Ohe supletorioak. Tximenea duen egongela. Sukalde ekipatua.



Larraitzeko langan 415 metroan hasi, eta 30 segundoro aterako dira parte hartzaileak; helmuga Txindoki gainean izango dute, 1346 metro tara. HITZA

I. Txindoki Kilometro Bertikala proba

Mendia » Ekainaren 19an egingo den lasterketa, Euskal Herriko Bertikalen Txapelketarako puntuagarria izango da.

AGURTZANE BELAUNZARAN

415 metroko altueran hasi eta 1.346 metro tara, ahalik eta azkarren igoztea da kontua. 3.878 metro tataro luzera izango du ibilbideak eta helmuga, Txindoki gaina.

Txindoki Kilometro Bertikala mendi lasterketa egiten den lehen aldia izango da ekainaren 19koa.

«Mendi erakargarria da Txindoki mendizaleen artean. Altuera ezberdintasun handia duena gainera. Kilometro bertikalaren froga antolatzea aproposa iruditu zitzaigun» azaldu du Patxi Kaminosen antolatzaileak.



Larraitzeko langan emango zaio hasiera lasterketari. Goizeko hamarretan aterako da lehenengo parte hartzailea. 30 segundoro aterako dira gainerakoak. 931 metroko altuerari egin beharko diote aurre. Lasterketa Txindokiren puntan amaituko da.

Parte hartzaile bakoitzari *chip* bat jarriko zaio «denbora zehatz kontrolatzeko». Bidearen erdian, ura eta fruta freskoa jateko aukera izango dute lasterkariak.

Proba puntuagarria

Txindokikoa proba puntuagarria izango dela azaldu du Patxi Kaminosek. «Anboton, Azpeitian eta Uharteko Arakilen ere hasi berriak dira lasterketa bertikalak egiten. Guztiak dira Euskal Herriko Bertikal Txapelketarako puntuagarriak» azaldu du.

Izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 4a bitartean. Interesatuak www.abaltzisketa.net webgunean eman behar dute izena. «Orain arte, 70 pertsonen izena eman dute, baina 250 parte hartzaile erantzten dago zabaldua lasterketa». Federatuak 15 euro ordaindu beharko dute, federatu gabek



» MENDI LASTERKETA

- **Zer.** I. Txindoki Kilometro Bertikala mendi lasterketa
 - **Non.** Larraitzeko langan hasi eta Txindoki puntaraino.
 - **Noiz.** Ekainaren 19an.
 - **Izen ematea.**
- www.abaltzisketa.net webgunean.

berriz 20 euro. Parte hartzaileen artean, izen ezagunak espero dituzte antolatzaileak: «Loatzoko proba irabazi zuen lasterkariak jadanik izena eman du. Anbotoko proba irabazi zuen Didier Zago frantziarra ere, etortzea espero dugu eta emakumeetan berriz, Nerea Amilibia aiarrak parte hartzea nahi dugu».

Lehenengo aldia denez, «denbora errekorik ez dago», baina Patxi Kaminosek «35 minutu ingururen bueltan» ibiliko dela irabazle aipatu du. Emakume eta gizonezko irabazleak 300 euroko saria jasoko dute. 45 urtetik gorakoetan denbora onena egiten duenak, 150 eurokoa jasoko duela azaldu du Patxi Kaminosek.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Txaraman agur esan diete jaiiei eta Anoetan kaixo

Aisia » Atzo amaitu ziren Txaramako jaiak eta hasi besterik ez berriz, Anoetakoak; gaur Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute.

ERREDAKZIOA

Festa batzuk amaitu, eta besteak hasi ziren atzo Tolosaldean. Alde batetik, Txaraman agur esan zieten herriko jaiiei. Anoetan berriz, lehendabiziko eguna ospatu zuten, eta motorrak berotu, hurrengo egunetarako.

Txaraman, ostiral iluntzean antzerki batekin ekin zieten jaiiei. Atzo berriz, eguerdian, Toka Txapelketa jokatu zuten. Bertan 20 lagun inguruk hartu zuten parte. Jarraian, Pintxo Lehiaketarekin batera, mokadutxo bat jateko eta sagardo pixka bat edateko aprobe txatu zuten herritarrek. Dena den, gauean bildu zen jende gehien, herri afaria ospatu baitzuten, plazan jarritako karpan.

Koadrilen Egunarekin ekin diete jaiiei Anoetan

Indarrez eta gogotsu hasi zituzten atzo herriko jaiak anoetarrek. Koloretako blusak soinean jantzita atera ziren goizetik kalera. 20-25

» EGITARAUA

Maiatzak 30, gaur Dantzari Txiki Eguna

■ **10:00etan.** Baserritarren Azoka plazan, Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuturik. Talogileak eta dultzaineroak egongo dira.

■ **10:30ean.** Alegia, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Villabona eta Anoetako dantza taldeen kalejira.

■ **12:00etan.** Dantza taldeen emanaldia plaza txikian.

■ **18:30ean.** Oskorri musika taldearen *The Pub Ibiltariaren* emanaldia plazan. Gainera, Loatzeko Musika Eskolak parte hartuko du saioan.

koadrila inguru elkartu ziren atzokoan. Pilotalekuan egin zuten bazkarian berriz, 260 lagun inguru eseri ziren mahaien bueltan. Arratsaldean, ohiturari jarraituz, jokoa egin zituzten herriko plazan.

Ekitaldiekin eta jarduerekin jarraituz, gaur, eta datorren larunbat nahiz igandean, udaletxean, ikusgai izango dira herriko artisten artelanak, eskulanetako taldeak eginitako lanak eta festetako Kartel Lehiaketan aurkeztutako lanak. 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era egongo da zabalik erakusketa.



Koadrilen Eguna izan zen atzokoa Anoetan; goizean, Ertzaintzak presoek argazkiak kendu nahi izan zituen. HITZA



Jaiak hasterako, «erasoa»

Jaiak hasi baino ordu batzuk lehenago, 08:30 inguruan, Ertzaintzak, herriko plazan jarrita zeuden eskualdeko presoek argazkiak kendu zituen. Anoetako Ezker Abertzaleak azaldu zuenez, «hiru kotxetan joan ziren, aurpegia estalita eta gogo biziz saiatu ziren argazkiak kentzen». Bide batez «erasoa» gogor salatu zuten eta adierazi, «berritro ere argi geratu dela zein den Aresek bere ertzainen bitartez lortu nahi duena, gure lagun presoek aldeko aldarrikapen oro desagertu araztea». Hala ere, garbi utzi nahi izan zuten, «horrelako gainetik, euskal preso politikoen eskubideen alde kalean lanean jarraituko dutela». Bestalde, herritarrek ere gonbidatu nahi izan dituzte «borroka honetan laguntzera, presoak etxeratu ahalizateko».



Txaraman besteak beste, Pintxo Lehiaketa egin zuten atzo eguerdian. I.T.

Dantzarako euskal doinuek hartu zuten atzo egun guztian zehar, Ibarako plaza

Ibarra » IV. Dantzari Txiki eta II. Alurr eguna ospatu zuten; goizean txikienak aritu ziren dantzan eta arratsaldean helduenak.

ERREDAKZIOA

Alurr dantza taldekoek egun beteak izan zuten atzo. Izan ere, alde batetik, goizean IV. Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten, eta arratsaldean, II. Alurr Eguna.

Ibarra, Berastegi, Altzo, Anoeta, Irura, Bera, Tolosa, Zizurkil eta Ipar Euskal Herriko 300 haur inguruk hartu zuten parte goizeko ekitaldietan. Goizean goiz, 9:30 inguruan elkartu ziren haurrak Ibarako plazan. Bertan elkar agurtu zuten, eta herritarrek ongietorria eman zieten gainontzeko dantza taldeei. Jarraian, lanari ekin zieten. 10:00ak aldera, Ibarako auzoetara bideratu ziren dantzariak. Bost taldetan banatu ziren, beste hurrenbeste auzotara joateko. Haue-



Euskal Herri osotik etorritako 300 haurrek hartu zuten parte Ibarako IV. Dantzari Txiki Egunean. I. TERRADILLOS

tako bakoitzean egin zuten dantza eguneko protagonistek. Gero, 12:30 aldera, plazara itzuli ziren, eta dantzari txiki guztiek fandangoa eta arin-arina dantzatu zuten. Amaitzeko, musika alde batera utzi eta joko batzuk ere egin zituzten.

Arratsaldean, Alurr Eguna

Ikasturte amaierako festa bezala joan den urtean antolatu zuten lehendabiziko aldiz Alurr Eguna, eta aurten, errepikatzea erabaki dute. Kurtsioan zehar ikasitakoak erakusteko unea da hau beraz.

Ikasturte hau, aldaketez betetako izan da gainera, eta atzo izan zen eguna, hauek onerako izan diren edo ez erakusteko.

Guztira, 130 gazte aritu ziren gorpuzta astintzen, dantza tradizionalak eta koreografia berriak nahastuz. Aipatu bezala, berrikuntza ugarirekin, ordubeteko emanaldia eskaini zuten.

Dantza emanaldiak amaitu ostean, gurasoen eskutik, afaritxo bat egin zuten. Egun luzeari amaiera behar zen bezala emateko, dantzaldia egin zuten gauerdira arte. Horretaz arduratu ziren urtean zehar ere, Alurr taldearekin aritzen diren musikariak.

Aduna, Zizurkil, Villabona eta Asteasu mugak gaindituz

ASIER IMAZ

II. Senidetze Eguna ospatu zuten atzo Adunan Aiztondo bailarako lau udalek eta herritarrek eta Segundo Montes komunitateko kideek.

Adunako alkateak, Arantza Aburuzak, zuzendu zuen ongietorri instituzionala. El Salvadorreko komunitatearekin Aiztondok duen erlazioa «oso positiboa» dela esan zuen Aburuzak: «instituzio mailaz gain, herritarrek kultura eta bizi modu desberdinak ezagutzeko aukera dutelako».

Segundo Montesezko kideak ere oso gustura agertu ziren. Lehenik gonbidapena eskertu zuten eta ondoren senidetzearen garrantzia

azpimarratu zuten: «Harreman honen bidez gure herrien garapenean laguntzen duzelako baina batez ere, zuen elkartzasuna jasotzen dugulako».

Porrotx pailazoaren babesa

Ongietorri instituzionalaren ondoren Porrotxek hartu zuen protagonismoa. Haur eta udal ordezkariak elkartu zituen lehenik, denekin argazkia ateratzeko. Ondoren, sudur gorriak bere saioa eskaini zuen.

Talogleak ere bertan zeuden, lotsatu xamar baina talo ederrak prestatuz. Ongietorri jaiak bazkari, bertsolari, trikitilari eta abarrek jarraitu zuten.



Udaletxe aurrean lanean gogor aritu ziren taloak. A. IMAZ

Ongietorri instituzionalaren ondoren balkoira irten ziren udal ordezkariak. Porrotx bere saltsan ibili zen. A. IMAZ

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aureko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu HITZA 494304322
berria

Laguntzaileak FAGOR

Edurne Agirrezabalek irabazi du Poltsikoko IV. Antzerki Lehiaketa

Aduna » 'Zilboreste' lanarengatik saritu zuen epai-mahaiaik; publikoaren saria berriz, Le Mamelon Fantastiquentzat izan zen.

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean ospatu zen Asvinenean Poltsikoko Antzerki Lehiaketako final handia. Bertan, hainbat kanporaketan ostean sailkatutako lau talde lehiatu ziren. 22:30ean hasi zen gala, eta goizaldera arte luzatu.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, sarrera guztiak saldu zituen, eta aretoa txikiegi geratu zen.

Lau antzerki taldeetatik bi izan ziren sarituak. Epai-mahaiarena Edurne Agirrezabalentzat izan zen. *Zilboreste* lana aurkeztu zuen, aurreko kanporaketetan bezala.



Edurne Agirrezabalek *Zilboreste* lana aurkeztu zuen. HITZA

Honen bestez, mila euro etxeratu zituen.

Publikoak eskaini zuen gaueko bigarren saria. Emanaldiak amaitu ostean, bakoitzak bere botoa eman zuen, eta gehien jaso zituena, Le Mamelon Fantastique taldea izan

zen. Hauek *Bernardito* lana taularatu zuten.

Saririk gabe geratu ziren beraz, Hartzaka taldekoak, eta eskualdeko ordezkari bakarrak, hau da, Berastegiko Olatz Etxeberria eta Jone Gorostarzu.

Mendia » Edurne Pasaban eta Asier Izagirre mendigoizaleei omenaldia egin zieten atzo tolosarrek; jendetza gerturatu zen Plaza Zaharrera.



Ongietorri hunkigarria

ESTI EZEIZA - INIGO TERRADILLOS

1998. urtean hasi zen zortzimilako abentura Edurne Pasabarentzat, Oargiko koadrilakoekin Dhaulagirin zela. Hamabi urte geroago mendigoizale tolosarrentzat «pentsaezina» zena gertatu da, hau da, hamalau zortzimilakoa gaititu dituela, hori egiten munduan bigarren emakumea izanik. Bada, lorpen horrengatik ongietorri berezia prestatu zien atzo euren jaioterriak Pasabani, eta berarekin batera azken espedizioetan parte hartu duen Asier Izagirri.

Triangulon hasi zen bi mendigoizaleei eskaintako omenaldia. Bertatik Tolosako dultzaineroek eta txistulariek eta Tolosaldeko Arraun Klubeko kideek lagunduta Plaza Zaharreraino iritsi ziren. Bidean hainbat geldialdi egin beharra izan zituzten, herritar ugari zoriandu eta besarkatu nahi baitzituen. Jokin Bildarratz alkatea eta gainerako Udaleko ordezkariak zituzten zain bertan, eta handik udaletxeko balkoira igo ziren.

Han goitik «espero ez zutena» ikusi ahal izan zuten, Plaza Zaharra, Inauterietako edota San Joan jaietako pregoia bailitza, jendez beterik eurei harrera egiteko. Bi protagonistek hitza hartu aurretik, Amaia Agirre eta bertso eskolako kide bat bertsotan entzuteko aukera izan zen, eta Samaniegoko hain-

bat ikasle ere igo ziren bertsoen bidez mendizaleak zoriontzera.

«Eskerrak tolosar guztiei»

Jokin Bildarratzek ere bi mendizaleak zoriondu zituen «tolosar guztien izenean», eta horrekin batera, Koldobika Jauregiren Uzturre irudikatzen duen serigrafia bana oparitu zien. Hunkiturik hitz egin zuten biek. Asier Izagirrek tolosar guztiak eskertu zituen, eta baita Pasaban bera ere «horrelako esperientzia batean parte hartzeko aukera emateagatik, eta horrela Euskal Herriaren eta Tolosaren izena lau haizeetara zabaltzeagatik». Pasabanek ere esker hitzak izan zituen tolosar guztientzat, «izan ere, 8.000 metro gaudenean, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da zure familiaren eta herritarren babesa sentitzea».

Tolosa Kantari eta Legazpiko Erondailako kideen kantuen ondoren, Bisiguaren Festan bazkalduz amaitu zuten ongietorri festa.



Samaniegoko ikasleak bertsotan eta Tolosa Kantari eta Legazpiko Erondailakoak abesten. I.TERRADILLOS / M. SAN SEBASTIAN



Jende ugari gerturatu zitzaion zoriontzera. Eskuinean, Jokin Bildarratz Koldobika Jauregiren serigrafia oparitzen. E.E./I.T.



Bisiguaren Festan gonbidatu bereziak

GASTRONOMIA » Txinparta elkarteak Bisiguaren Festa antolatuta du artzen Zerkausian, asteburu honetan hain zuzen ere. Atzo bazkaria eta afaria izan zen, eta gaur, berriz, bazkaria izango da. Atzokoan, gainera, gonbidatu bereziak izan zituzten, izan ere, Edurne Pa-

saban eta Asier Izagirre mendigoizaleek bertan egin zuten bazkaria. «Gustura, pozik eta hunkiturik» zeudela herriak egindako harrerarekin azaldu zuten. Bazkalten ari zirela asko izan ziren eurekin argazkia ataratzera gerturatu zirenak. I.T.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria^{ish}



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMENETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIAren harpidedunen artean, Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, NIZI EUSKALITZ. **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Ikurrinari omenaldia eta VI. Kirol Astea


ALEGIA ■ Ikurrina handi bat zintzilikatu zuten atzo Alegian. Euskal ikur honi omenaldia egin baitzuten bertan. Ekitaldian txalapartariak, dantzariak, txistulariak... izan ziren. Ondoren hamaiketako egin zuten. Arratsaldean berriz, VI. Kirol Astea jarri zuten martxan, Sas-kibalo Txapelketa batekin. Gaur mendira joango dira 08:30ean eta etzi, ekainak 1ean, Koke Lasak *Shisha Pangma, bide britainiarra* proiektzioa eskainiko du. Kirol Astea ekainaren 12an amaituko da, futbol denboraldi amaierako jaiera-ekin. INIGO TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!

Ekhi. Gaur 2 urtetxo! Zorionak eta muxuak etxekoan partetik!



Zorionak!

Hernani Sousa (Lizartza).
Gaur 15 urte. Ongi pasat!
Familiaren partetik.

GOSARI ONA

**Euskal Herria kalea 2, beheara
IBARRA • Tel.: 943 24 50 14**

A Agenda

Kultura

■ **Leitza.** Kultur Aroa (gaur):
09:00etan, gaiteroen eskutik di-
na plazatik abiatuta. 11:00etan
XXXII. Artisau Azoka herriko pla-
zan.
■ **Leitza.** Kultur Aroa (bihar):
19:00etan, *Teknologia berriak gi-
zartean* gaiaren inguruko hitzaldia
liburutegian.

Dantza

■ **Tolosa.** Udaberri dantza taldeko
kideek emanaldia eskainiko dute
12:00etan Leidorren.

Jaiak

■ **Anoeta.** Dantzari Txiki Eguna.
10:00etan Baserritarren Azoka
herriko plazan. 10:30ean, dantza
taldeen kalejira. 12:00etan, dantza
taldeen emanaldia. 18:30ean, Os-
korri musika taldearen emanaldia
plazan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo ka-
lea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren,
52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

paper eskola lept
escuela del papel

- **ERDI MAILAKO ZIKLOAK**
Kimikagintza
Arztegi, botika eta laborategietan lan egiteko
- **GOI MAILAKO ZIKLOAK**
Análisi eta Kontrolako Laborategia (Eusk., Cast.)
Edukio Industria-, osasun-, eta kimika-laborategian lan egiteko
- **Kimika Industriala (Eusk., Cast., Ing.)**
Kimika, papeteria, fundizio elaboreko enpresetan lan egiteko
- **Zerbitzu puntua**
Papera, ontzi eta enbalaie, lan goitza, e-learning ikastaroak,
berriztapen proiektuak, enpresa-zentruak....
- **Liburri buruzko jardunaldiak** (aukeratu ordua telefonoz edo gure webgunean bidez)

Informazio gehiagorako sartu gure web orrian edo jaso informazio orria edo etortri gure Arabieran
www.escuela-papel.com / info@escuela-papel.com / 943672900